

Hirubide institutuko logo berriaren egileei elkarrizketa

Hirubideko logo berriak itxura berritua ekarri dio ikastetxeari. Diseinu horren atzean, besteren artean, Nahia Rodriguez Lavaud dago, Hirubideko ikasle ohia. Nahiarekin batera, Leire Tello, Oier Lecuona eta Oihan Garcia aritu dira logoa egiteko prozesuan. Kazetaritza ikasgaiko DBH2ko ikasleok Naiarekin eta Leirerekin hitz egiteko aukera izan dugu, logoaren sorrera, esanahia eta prozesua hobeto ezagutzeko.

Nahiak 2021ean amaitu zituen ikasketak Hirubiden, eta sare sozialen eta komunikazioaren munduak beti gustuko izan dituenek, Marketing ikasketak egiten dihardu. Hirubiden bizitako esperientziak ere izan du eragin txikiren bat logoa sortzeko prozesuan, bereziki koloreak aukeratzean.

Kontatu digute sorpresa handia izan zela haientzat Hirubideko logoa diseinatzeko aukera izango zutela jakitea, eta proposamena onartu ostean, ilusio handiz ekin ziotela proiektuari.

Bi hilabete inguru aritu dira diseinuan. Jadanik ezaguna den logoarekin batera, beste diseinu batzuk ere sortu zituzten bidean. Azaldu dutenez, oinarrizko ideia beti antzekoa izan den arren, kolore ezberdinekin jokatzeko aritu dira azken diseinua aukeratu bitartean.

Sormen prozesua nolakoa izan den kontatu ziguten: lehenik marrazki eta forma ezberdinekin probatzen aritu ziren, eta, azkenik, zer kolore eman erabaki zuten.

Aitortu zuten azken emaitzarekin pozik geratu direla; ilusio handiz bizi dute egindako logoa Hirubideko argitalpen, web-orri, kartel eta komunikazio guztietan erabiltzen dela ikustea. Hasieran ez zuten pentsatzen proiektua aurrera eramatea lortuko zutenik, eta egindako ahaleginaren ostean, oso harro daude lortutako emaitzarekin.

Eskerrik asko, Nahia eta Leire, gure galderei erantzuteagatik, eta zuen esperientzia gurekin partekatzeagatik. Oso interesgarria izan da logo berriaren atzean dagoen sormen lana ezagutzea. Zorte on aurrerantzean ere zuen ibilbidean.

Kazetaritzako ikasleak (DBH2)

Hirubide institutua